



ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIEN ARGAZKI LEHIAKETA ONDAREA KLIK BATEAN

Bizkaiko Foru Aldundiaren, Igerrak (Euskal Instagram Komunitatea) eta Ondare lagunak taldearen eskutik, Instagram eta Facebook bidezko argazki lehiaketa aurkezten dugu. Ondarearen Europako Jardunaldiak urriaren 1etik 31ra bitartean ospatuko dira. Honen inguruan ekitaldi pila egingo dira Bizkaiko paisaia biziak jendeari zabaltzeko. Testuinguru honetan, hurrengo argazki lehiaketa antolatu dugu:

ONARRIAK

Argazki mota

Bizkaiko ondarea, eta espresuki, Bizkaiko paisaia biziak islatzen dituzten argazkiak bilatzen dira.

Nola parte hartu?

Facebook edota Instagramera argazkiak igo behar dira hurrengo traolak erabilita:

- #ondareabizkaia2017

- #igerrak_ondareabizkaia

Nork hartu dezake parte?

- 18 urte edo gehiagoko herritarrek, baldin eta ez badira IGERRAK, ONDARELAGUNAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO langile edota ahaide hurbilak.
- Jardunaldietako ekintzetan parte hartu eta argazkiak egiten dituen edonor
- Bizkaiko ondarea eta paisaia bizia islatzen duten edozein argazki, nahiz eta jardunaldietan parte hartu ez.

Epea

Urriaren 1etik 31ra. Biak barne.

Sariak

3 sari banatuko dira:

1. Urte beteko debaldeko sarrera bono 2 Bizkaiko Foru Aldundiako museoetara sartzeko. Museo hauek dira: Arkeologi museoa, Arrantzaleen museoa, Euskal Herria Museoa, El Pobal burdinola, La Enkartada fabrika museoa eta Txakolingunea.
2. Zorba ikuskizunerako 4 sarrera
3. Bizkaiko Foru Aldundiaren publikazio lotea

Epai mahaia

Epai mahai bat ezarriko da. Honen barnean: igerraken arduradunak, Ondarea Bizkaia, eta Ondare Lagunak parte hartuko dute.

Baldintzak

- Instagram edo Facebook sare sozialeetan norberaren profilaren bidez parte hartu.
- #ondareabizkaia2017 eta #Igerrak_ondareabizkaia traolak erabiltzea argazki oinean.
- Argazki oinean esaldia euskaraz idatzi behar da.
- Argazki berriak zein zaharrak izan daitezke, beti ere zaharretan iruzkin bidez argazkiaren deskribapena eta traolak agertu badira.
- Instagram-en @ondareabizkaia eta @Igerrak erabiltzaileak jarraitu.